



**LISBOAKO TRATATUA INDARREAN SARTU DELA ETA,
EUSKO JAURLARITZAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
(2009ko abenduaren 1a)**

Lisboako Ituna indarrean sartu dela eta, Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunaren aro berriaren aurrean sentitzen duen poza adierazi nahi du, Europako integrazio prozesuan aurrera pauso ukaezina baita hori; prozesu horrek, izan ere, kontinentean izan den bake eperik luzeena eta Europako herrien eta herritarren aniztasunarekiko errespetu klima sendotzeko balio izan du.

Itun berri honek aukera emango dio Europar Batasunari hobeto prestatuta egoteko etorkizuneko erronkei aurre egiteko, herritarrei erakundeak hurbiltzeko baliabide gehiago eta hobeak emanez. Europar Batasun berriak honako hauek izango ditu:

Demokrazia, gardentasuna eta herritarrekiko hurbiltasun handiagoa: Itunak indar gehiago emango die Europako Parlamentuari eta estatuetako parlamentuei, erabakiak hartzeko aukera herritarrei hurbilduz, eta ondorioz legitimitate handiagoa emanez;

Eraginkortasuna eta arintasuna: Kontseiluan lan eta hautaketa metodoak erraztuko dira, aho batez hartu beharreko erabakiak gutxitu eta gehiago kualifikatu bitartez hartutakoak gehituz, eta elkarrekin erabakitzeko prozesua orokortuz, egungo munduaren erronken aurrean garaiz eta taxuz jarduteko aukera emanez;

Eskubide, askatasun eta balore demokratikoen konpromisoa: Oinarrizko Eskubideen Gutuna onartu da, eta gainera jaso da Europar Batasuna Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Hitzarmenari atxikiko zaiola etorkizunean; horrek harmonia handiagoa ekarriko du estatuetako auzitegi konstituzionalen, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Luxenburgoko Justizia Auzitegiaren artean;

Nabarmenago eta indar handiagorekin aritzea nazioarteko eszenatokian kanpo politikak eta Europako seguritateak izango dituen baliabide berriei esker.

Egia bada ere Lisboako Ituna urrun gelditu dela Europarako Konstituzio bat ezartzeko Itunak sortu zituen itxaropenetatik, Eusko Jaurlaritzatik uste dugu eskaintzen dizkigun aukeren aldeko apustua egin behar dela —aukerak asko baitira— eta aprobetxatzeko gogoz lan egin behar dela.

Lisboako Itunak subsidiarotasun printzipioa indartzen du; printzipio horrek esaten du erabakiak herritarrengandik ahalik eta hurbilen hartu behar direla. Euskal herritarren eta erakundeen onurarako, Eusko Jaurlaritzak Europako erakundeetan modu zuzenean parte hartzea sustatzearen aldeko apustua egiten du eta eskualdeek Europa eraikitzen era aktiboagoan parte har dezaten defendituko du.

Aldaketa klimatikoaren aurka borroka egiteko erabakiaren aurrean, Euskadik ez du bakarrik parte hartu nahi, iraunkortasunaren arloan buru eta eredu izan nahi du nazioartean.

Eusko Jaurlaritzak jarraituko du, baita ere, Europako giza ongizate sistema mantentzearen eta Lisboako Estrategiaren neurriak biziberritzearen alde egiten, barne merkatu integratuagoa eta kohesio ekonomikoaren eredia sozialagoa eta iraunkorragoa izan daitezen.

Eta, Europar Batasuna herritarrei hurbiltzeko gogoia erakusteko eta herritarren interesetarako balio duela bermatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Presidentziarekin batera, neurriak bultzatuko ditu Europar Batasuneko politikak eta neurriak Euskadin zabaltzeko. Halaber, lan egingo du Euskadi Europara hurbiltzeko, Euskadiren irudirik hoberena eskainiz. Jendearen adeitasuna, aniztasuna eta elkartasuna eta enpresen profesionaltasuna eta eraginkortasuna eskainiz, alegia.

Laburbilduz, Itun berria indarrean jarri dela eta, europar bokazio europarziale sendoa dugula adierazi nahi dugu eta, Euskaditik bultzatuta, Europa batuagoa eta solidarioagoa izan dadin gogo irmoa dugula berretsi nahi dugu.